



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

PRENTSA OHARRA

## **Kontuen Epaitegiak ez dau irregularartasunik aurkitu Biscaytik-en kontratazinoan, Jose Luis Bilbaok esan dauenez**

Bilbon, 2015eko martxoaren 5ean

Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldun Nagusiak, Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde-Batzordean gaur egin dauen agerraldian adierazo dauenez, Kontuen Epaitegiak ez dau irregularartasunik aurkitu, Biscaytik foru fundazinoaren kontratazinoen ganean egindako azkeneko ikuskaritzan. “Ez dagoala ezer aurpegiratzeko esan deuskue”, adierazo dau Bilbaok, alegazino epealdian dagoan eta behin betiko izaera eukiteko epaitegiaren osoko bilkuratik igaro behar dan auditoriaren azken zirriborroari buruz berba egitean. Zirriborro horretan on ikusia emon jake kontratazino espediente “guztiei”.

Astelehenean Gernikan egindako azkeneko osoko batzarrean oposizionoko taldeei esandako moduan, Ahaldun Nagusi eta Biscaytik-eko Presidente danak barriro errepikau dau fundazio horrek, “erakunde publikoen kontratazinoa araupetzen daben legeak betez” kontratetan dituala beti kanpoko zerbitzuak, eta euskal epaitegiak hori egiaztau ahal izan dauela, “legea betetearen” kontra doan “ezer” ez dauelako aurkitu.

Bilbaok, oposizionoko taldeek, Biscaytik-eko kontratazinoen inguruan “gura daben guztiari bueltak emoten jarraitu ahal dabela” esan dau. PSE-EE eta PP taldeek agerraldi eskari bi egin dabez, Bizkaiko batzarretara Unai Rementeria Lehendakaritzako Diputatua eta Ahaldun Nagusia etorri daitezan. “Azken egunetan politika egiteko dagoan modua da, eta datozen foru eta udal hauteskundeetan modu hori desagertzea gurako neuke”, esan dau. Jarduteko modu hori, bere berbetan, talde batzuek daukien urduritasunaren ondorioa da, eta, urduri dagozanez, “haizagailuaren” taktika erabilten dabe. “Prakak behean harrapau nabenean, danok bardinak garala esan behar dot”, esan dau, “Bankia, Barcenas...” moduko kasuak aitatu.

Bilbaok argitu gura izan dauenez, fundazinoa eta IKT-en sektoreko enpresak sortzeko “efektu bultzatzailea” egiten dauen Bake Eder enpresa elkartegia gauza desbardin bi dira. Holan, Biscaytik-en eta elkartegi horretan dagozan enpresen artean soziedade harremanik dagoanik ukatu egin dau. Bere eretxiz, elkartegi hori, ekonomiaren sustapenaren arloan egin behar danaren “eskuliburuko” adibidea da, beste sektore batzuetan egiten dan moduan, eta horreen artean elektrikoa, ikus-entzunezkoak edo automobilgintza aitatu ditu. “Bake Ederren instalauta dagozan enpresa guztiekin ez dabe Biscaytik-entzat behar egiten”. Bere datuak kontuan izanda, une honetan “17” enpresa dagoz Foru elkartegian, eta horreetatik “5” izan ziran azkeneko “9 kontratazino espedienteak” eskuratu ebezanak.

Arturo Aldecoa PP-ko batzordekideak esan dau “zeozer arraroa gertatzen dala” 2013. eta 2014. urteetan esleitutako kontratu “ia %70a”, Biscaytik-en egoitzaren ondoan dagoan Bake Eder Ezagutza Zentroan dagozan enpresek eskuratu ebazala kontuan izaten badogu. “Hurbiltasun fisikoa daukien enpresen alde egitearen adibide argia da”, eta, bere berbetan, lehia librearen kontra doan “bezero sarea” sortu dala erakusten dau.

PSE-EE eta EH Bildu taldeek adierazo dabenez, ez daukie, Aldecoaren berbetan, azken urteetan esleitu diran “115 kontratu” Bake Ederren dagozan enpresei emotean, legez kanpoko



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

ezer gertatu dala esateko daturik. Iñaki Egaña bozeroale sozialistak esan dau Ahaldun Nagusiak bere erantzunetan ez dauela argitu Aldundiaren esku dagoan fundazioaren ganean dagoen “zalantza izpi hori”, eta kritikau egin dau esleipena lortzen daben enpresek “nahiko modu zorrotzean asmatzen dabela” lizitazinoaren prezioa. EH Bilduko Aitor Torrek adierazo dauenez, “vox populi” da “empresa gitxi batzuk” dirala Foru Aldundiak azpiegituren arloan deitzen dituan lehiaketak irabazten dituenak, eta kritikau egin dau Biscaytik-en bitarte, “gaur egun erabilgarriak ez diran” zerbitzuetan eta aplikazioetan egin dan milioi askoko inbertsinoa.

Lorea Bilbao EAJ-PNV-ko bozeroalea harrituta geratu da oposizionoko taldeek erakutsi daben jarreraren aurrean, eta Aldundiaren “gardentasuna” azpimarratu dau, kontratazino espediente guztiak argitu ditualako eta Kontu Publikoen Euskal Epaitegiak ez dauelako irregularitasunik aurkitu. “Klase politikoaren aurrean konfiantza faltea dagoan une honetan, ez jat bape gustetan, behin eta barriro holango zalantzak sortzerik Biscaytik-en, Foru Aldundiaren eta Kontuen Epaitegiaren aurrean”, eta, ganera, fundazioak estadu eta nazinoarte mailan lortu dituan sariak, eta erabiltzaileen eta udalen aldetik lan horrek jasoten dauen “eretxi ona” gogoratu ditu.

#### **EZ DIRA ONARTU EH BILDUREN PROPOSAMEN BIAK**

Saio berean, EH Bilduko batzarretako taldeak arauz besteko proposamen bi defendidu ditu, baina bata be ez dabe onartu Batzarretako ganerako taldeek (EAJ-PNV, PSE-EE eta PP). Batean, koalizino abertzaleak eskaarea egin deutso Aldundiari, EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeakaz erlazionauta dagozan Sabino Arana Fundazioari, Ramón Rubial Fundazioari eta Fundación Popular de Estudios Vascos izenekoari, bizkaitar guztiak aurrekontuetatik jasotako diru-laguntza izenduna kentzeko, eta horreen ordez, “egiten dituen jardueretan oinarritutako urteko laguntzak jasotzea, gizarteko ganerako alkarte eta eragile guztien moduan”. Asier Vega EH Bilduko batzordekidearen eretxiz, horreetako bakotxak 35.000 euro jaso ditu azken urtean. Lehenengo biek “560.000 euro” jaso ebezan 2007 eta 2014 artean, eta Alderdi Popularrari lotutakoak “375.000”.

Hiru taldeek esan dabenez, laguntza horreek, kulturaren eta pentsamendu politikoaren sustapenaren arloan aurrera eroaten daben lanagaz dagoz lotuta, eta argitu dabe holango diru-laguntza izendunak administratzina guztietaan eskintzen jakezala beste erakunde batzuei. Nerea Ahedok adierazo dauenez, Bizkaian bakarrik, “120 kontsignazio izendun” sartu ziran lurraldeko aurrekontuetan. Hiru fundazio horreek jasotako hiruek “105.000 euro” hartzen ditue, Aldundiak aurton arlo horretara bideratzen dituan “22,5 milioietatik, %0,4a”.

Beste hiru taldeek onartu ez daben arauz besteko beste proposamenean, koalizino abertzalearen asmoa, Bizkaiko Batzar Nagusiek “Confebasken, sindikatuaren izaerea kentzeko prozedurea Erakunde Sindikal eta Enpresarialen Estatutuen Gordailuari buruzko Errege Dekretuan sartzeko daukan asmoa “gaitzestea” zan. EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeak, Enpresarien erakundeak berak behin eta barriro, “prentsarako ohar bitan” eta Eusko Jaurlaritzaren Hiru Aldeko Alkarrizketarako Mahaian sinatutako “adierazpen batean”, ukatu dauan “ustezko” idazki bat gaitzestearen kontra agertu dira.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
B I Z K A I A

## NOTA DE PRENSA

# **El Tribunal de Cuentas no encuentra irregularidades en la contratación de Biscaytik, según José Luis Bilbao**

Bilbao, a 5 de marzo de 2015

El Diputado General de Bizkaia, José Luis Bilbao, ha sostenido hoy en una comparecencia en la Comisión Institucional de las Juntas Generales de Bizkaia, que el Tribunal de Cuentas, en su última inspección realizada a las contrataciones de la fundación foral Biscaytik, no ha encontrado irregularidades. “Nos han transmitido que no hay nada que reprochar”, ha dicho Bilbao en referencia al último borrador de auditoría que se encuentra en periodo de alegaciones y que tiene que pasar por el pleno del tribunal para que tenga carácter definitivo, en el cual se ha dado el visto bueno a “todos” los expedientes de contratación.

Como ya contestara a los grupos de la oposición en el último pleno celebrado el lunes en Gernika, el Diputado General y Presidente de Biscaytik, ha reiterado que esta fundación contrata servicios externos “cumpliendo siempre las leyes que regulan la contratación de los entes públicos”, algo que ha corroborado el tribunal vasco al no encontrar “nada” que vaya en contra de los “cumplimientos de legalidad”.

Bilbao se ha referido al interés de los grupos de la oposición –se sustancian sendas peticiones de comparecencia de PSE-EE y PP para que acudiera a la Cámara vizcaína el diputado de Presidencia, Unai Rementeria, y el Diputado General, respectivamente- de “seguir dando vueltas todo lo que quieran” en torno a las contrataciones de Biscaytik. “Es una forma de hacer política que tiene los días contados, que espero que desaparezca en las próximas elecciones forales y municipales”, ha dicho. Esta forma de actuar es fruto , según él, del nerviosismo de algunas formaciones y de la táctica del “ventilador”. “Cuando me han pillado con los pantalones bajados, tengo que decir que todos somos iguales”, ha declarado, refiriéndose a casos como “los bankias, Bárcenas...”.

Bilbao ha querido aclarar que la fundación y el centro empresarial Bake Eder, que ejerce de “efecto tractor” para la creación de empresas en el sector de las TICs, son dos cosas diferentes. En este sentido, ha querido desligar una relación societaria entre Biscaytik y las empresas ubicadas en este centro empresarial que, para él, es un ejemplo “de manual” de lo que se debe hacer en el ámbito de la promoción económica como sucede en otros sectores, entre los que ha citado el eléctrico, el audiovisual o el de automoción. “Todas las empresas instaladas en Bake Eder no trabajan para Biscaytik”. Según sus datos, “17 empresas” se ubican en estos momentos en el “elkartegi” foral de las que “5” accedieron a los últimos “9 expedientes de contratación”.

Por su parte, el apoderado del PP, Arturo Aldecoa, ha dicho que “algo extraño sucede” cuando “casi el 70%” de los contratos en los años 2013 y 2014 fueron adjudicados a empresas situadas en el Centro de Conocimiento Bake Eder, situado junto a la sede de Biscaytik. “Es un caso de libro de favorecer a empresas por proximidad física” y denota la creación de una “red clientelar”, según él, que va en contra de la libre competencia.

Tanto PSE-EE y EH Bildu han admitido no tener datos sobre que se estén produciendo ilegalidades en los “70 contratos de 115” adjudicados, según Aldecoa, en los últimos años a



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

empresas asentadas en Bake Eder. El portavoz socialista Iñaki Egaña ha indicado que el Diputado General no ha levantado con sus respuestas “ese atisbo de duda” que se cierne sobre la fundación foral y ha criticado que las adjudicatarias “acierten de manera bastante ajustada” el precio de licitación. A juicio de Aitor Torre, de EH Bildu, es “vox populi” que “pocas empresas” se llevan las adjudicaciones forales en materia de infraestructuras y ha puesto en duda la inversión millonaria realizada a través de Biscaytik en servicios y aplicaciones que “a día de hoy no son efectivos”.

La portavoz del PNV, Lorea Bilbao se ha sorprendido de la actitud mantenida por los partidos de la oposición, ensalzando la “transparencia” de la Diputación al publicar todos los expedientes de contratación y subrayando que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas no haya encontrado irregularidades. “No me gusta que, en estos momentos de desconfianza en la clase política, se generen estas dudas, una y otra vez, hacia Biscaytik, la Diputación y el Tribunal de Cuentas”, al tiempo que recordaba los galardones estatales e internacionales obtenidos por la fundación y la “buena consideración” de su labor por parte de usuarios y ayuntamientos.

#### **RECHAZADAS LAS DOS PROPOSICIONES DE EH BILDU**

En la misma sesión, el grupo juntero EH Bildu defendía dos proposiciones no de norma, ambas rechazadas por el resto de grupos de la Cámara (PNV, PSE-EE y PP). En una, la coalición abertzale pretendía que se instara a la Diputación a “eliminar” las subvenciones nominativas que reciben las fundaciones Sabino Arana, Ramón Rubial y Popular de Estudios Vascos, ligadas a PNV, PSE-EE y PP, para sustituirlas por ayudas anuales “en función de las actividades que realicen, al igual que el resto de asociaciones y agentes sociales”. Según el apoderado de EH Bildu Asier Vega cada una de ellas ha recibido 35.000 euros en el último año. “560.000 euros” fueron para las dos primeras entre los años 2007 y 2014 y “375.000” para la ligada al Partido Popular.

Las tres formaciones se han referido a que estas ayudas se circunscriben en el trabajo exclusivo que desarrollan en el terreno de la cultura y del fomento del pensamiento político, y han aclarado que estas subvenciones nominativas se ofrecen en todas las administraciones a otras entidades. Según Nerea Ahedo, sólo en Bizkaia se incluyeron en los presupuestos del territorio “120 consignaciones nominativas”. Las tres de estas fundaciones suman “105.000 euros de los 22,5 millones” que la Diputación destina este año, el “0,4%”.

En la otra proposición no de norma rechazada de nuevo por las tres formaciones políticas, la coalición abertzale quería que la Cámara vizcaína “reprobase” la pretensión de Confebask de introducir en el Real Decreto sobre Depósito de Estatutos de las Organizaciones Sindicales y Empresariales un procedimiento que permitiese promover la pérdida de la condición de sindicato. PNV, PSE-EE y PP se han negado a rechazar un “supuesto” escrito del que se ha desligado la propia patronal vasca a través de “dos notas de prensa” y “una declaración” firmada en la Mesa de Diálogo Tripartito del Gobierno Vasco.